

OLERKIAK

**FRIEDRICH HÖLDERLIN (1770-1843): OLERKIAK
(ITZULTZAILE: LUIS AROSTEGI)**

<An Landauer>

Sei froh! du hast das gute Loos erkoren,
 Denn tief und treu ward eine Seele dir;
 Der Freunde Freund zu seyn, bist du geboren,
 Diß zeugen dir am Feste wir.

Und seelig, wer im eignen Hauße Frieden,
 Wie du, und Lieb und Fülle sieht und Ruh;
 Manch Leben ist, wie Licht und Nacht, verschieden,
 In goldner Mitte wohnest du.

Dir glänzt die Sonn' in wohlgebauter Halle,
 Am Berge reift die Sonne dir den Wein
 Und immer glücklich führt die Güter alle
 Der kluge Gott dir aus und ein.

Und Kind gedeiht, und Mutter um den Gatten,
 Und wie den Wald die goldne Wolke krönt,
 So seid auch ihr um ihn, geliebte Schatten!
 Ihr Seeligen, an ihn gewöhnt!

O seid mit ihm! denn Wolk' und Winde ziehen
 Unruhig öfters über Land und Haus,
 Doch ruht das Herz bei allen Lebensmühen
 Im heil'gen Angedenken aus.

Und sieh! aus Freude sagen wir von Sorgen;
 Wie dunkler Wein, erfreut auch ernster Sang;
 Das Fest verhallt, und jedes gehet morgen
 Auf schmaler Erde seinen Gang.

<Landauer-i>

Poztu zaitez!, zotz ona atara dozu,
arima sakon eta leiala dozu-eta;
adiskideen adiskide izateko zara jaiio,
onen lekuko gaituzu jaialdian.

Eta zorionekoa bere etxean bakea,
zuk lez, eta maitasuna eta betea dakusana eta barea;
ainbat bizitza dira, argia eta gaua lez, ezbardinak,
urrezko erdiunean bizi zara zu.

Argitsu joten deutsu eguzkiak ondo eregitako egoitzan,
mendian ardao deutsu eguzkiak ontzen,
eta zoritsu zuzentzen deutsuz beti ondasun guztiak
Jainko zuurrak etengabe.

Eta umea gora doa, eta ama senarraren ondoan,
eta basoa urrezko odeiak koroitzen dauan lez,
olan zagoze zuok be aren inguru, itzal maiteok!,
zoriontzuok, aren maminok.

Oi izan arekin!, odeia ta aizeak dabiltz-eta
zakar sarri lurralde eta etxearen gain,
baina atseden dau biotzak bizitzako neke guztietan
gogoratze sakratua.

Eta ara!, poztasun arren aipatzen doguz ardurak;
ardao baltzak lez, poztuten dau kantu benak;
jaia itzaliz doa, eta bakoitza joango biar
bere bidetik lur medarrean.

Dichterberuf.

<Zweite Fassung>

Des Ganges Ufer hörten des Freudengotts
 Triumph, als allerbernd vom Indus her
 Der junge Bacchus kam mit heiligem
 Weine vom Schlafe die Völker wekend.

Und du, des Tages Engel! erwekst sie nicht,
 Die jezt noch schlafen? gieb die Geseze, gieb
 Uns Leben, siege, Meister, du nur
 Hast der Eroberung Recht, wie Bacchus.

Nicht, was wohl sonst des Menschen Geschik und Sorg'
 Im Haus und unter offenem Himmel ist,
 Wenn edler, denn das Wild, der Mann sich
 Wehret und nährt! denn es gilt ein anders,

Zu Sorg' und Dienst den Dichtenden anvertraut!
 Der Höchste, der ists, dem wir geeignet sind
 Daß näher, immerneu besungen
 Ihn die befreundete Brust vernehme.

Und dennoch, o ihr Himmlischen all und all
 Ihr Quellen und ihr Ufer und Hain' und Höhn
 Wo wunderbar zuerst, als du die
 Loken ergriffen, und unvergeßlich

Der unverhoffte Genius über uns
 Der schöpferische, göttliche kam, daß stumm
 Der Sinn uns ward und, wie: vom
 Strale gerührt das Gebein erbebte,

Olerkari deia

<Bigarren egikera>

Ganges-en urbazterrak entzun eben poz-jainkoaren
garaipena, guztiak menperatuz Indo-tik
Bako gaztea etorri zanean ardao
sakratuaz erriak lotatik iratzarten.

Eta zuk, egunaren aingeru orrek!, ez dozuz iratzarten
orain oindino lotan diranak? Emon legeak, emoiguzu
bizia, garaitu, maixu, zuk dozu bakarrik
menperatzeko eskubidea, Bako-k lez.

Ez da besteetan giza trebetasunari eta ardureari
etxean eta zeru zabal pean dagokiona,
gizona, pitzia baino bikainago,
arduratu eta janaritzen danean!, beste da
olerkariei ardura eta zerbitzutzat jarria!,
Gorengoa, A da, Arentzat gara gai,
urrago, beti barriz abestuz,
Ari bular adiskidetuak entzun dagion.

Eta alan be, oi zerutar guztiok, eta zuok
iturri eta urbazter eta zugazti eta goialde guztiok,
or arrigarriri leenengoz, zuk
guri uletatik oratutean, eta aaztuezinez
ustegabeko jenioa, sortzailea,
jainkozkoa, gure gainera etorri zan,
zentsuna guri mututzeraino, eta, oinaztarriak
jota lez azurrak dardaratzerraino,

Ihr ruhelosen Thaten in weiter Welt!
 Ihr Schicksaalstag', ihr reißenden, wenn der Gott
 Stillsinnend lenkt, wohin zorntrunken
 Ihn die gigantischen Rosse bringen,
 Euch sollten wir verschweigen, und wenn in uns
 Vom stetigstillen Jahre der Wohllaut tönt
 So sollt' es klingen, gleich als hätte
 Muthig und müßig ein Kind des Meisters
 Geweihte, reine Saiten im Scherz gerührt?
 Und darum hast du, Dichter! des Orients
 Propheten und den Griechensang und
 Neulich die Donner gehört, damit du
 Den Geist zu Diensten brauchst und die Gegenwart
 Des Guten übereilest, in Spott, und den Albernern
 Verläugnest, herzlos, und zum Spiele
 Feil, wie gefangenes Wild, ihn treibest.
 Bis aufgereizt vom Stachel im Grimme der
 Des Ursprungs sich erinnert und ruft, daß selbst
 Der Meister kommt dann unter heißen
 Todesgeschossen entseelt dich lasset.
 Zu lang ist alles Göttliche dienstbar schon
 Und alle Himmelskräfte verscherzt, verbraucht
 Die Gütigen, zur Lust, danklos, ein
 Schlaues Geschlecht und zu kennen wähnt es
 Wenn ihnen der Erhabne den Aker baut
 Das Tagslicht und den Donnerer, und es späht
 Das Sehrohr wohl sie all und zählt und
 Nennet mit Nahmen des Himmels Sterne
 Der Vater aber deket mit heilger Nacht,
 Damit wir bleiben mögen, die Augen zu.
 Nicht liebt er Wildes! doch es zwinget
 Nimmer die weite Gewalt den Himmel.

zuok mundu zabaleko egite geldi gabeok!,
 aduaren egunok, urratzaileok, Jainkoak
 isil xedatuz gidatzen dauanean, zaldi erraldoiak
 asarrez mozkor daroenera,

zuek isildu bear zindukeguze, eta gugan
 urte baketsuaren doinu gozoa asmatzean,
 olan entzun bear ko litzake
 umeak ausarti eta astitsu maixuaren

soinugailu gurgarri garbia olgetan jo baleu lez?
 Eta orretarako dozuz, olerkari!, sortaldeko
 igarleak eta greziarren kantua eta
 oraintsu trumoiak entzun,

espiritua joputzan erabil daizun, eta Onaren
 agertzea arin igaro erazi, irriz, eta xaloa
 ukatu, biotz gabe, eta salkor,
 pizti baitua lez, jokora beartu daizun.

Eztenak ziztaturik, suminetan
 jatorriaz oroituko dan arte eta deadar egin,
 Maixua bera etorri daiten, orduan
 eriotz tiro sutsu artean arimage itziko zaitu.

Luzaroegi dago zerbitzari jainkozko guztia,
 eta zeruko indar guztiak ditu isekatzen, onberak
 txarto erabilten, atseginarren, esker txarreko,
 gizaldi maltzurak, eta ezagutzen dituala uste dau,

soloa lantzen deusena Gorengoa izanez,
 egunezko argia eta trumoi-egilea, eta urrun-ikustailuak
 guztiak ikertzen ditu eta zenbatzen
 eta izenez aipatzen zeruko izarrak.

Aitak oster a estali egiten ditu gau sakratuaz,
 gu gelditu gaitekezan, begiak.
 Ez dau arek bortxa maite!, ez dau sekula
 indar andiak zerua beartzen.

Noch ists auch gut, zu weise zu seyn. Ihn kennt
Der Dank. Doch nicht behält er es leicht allein,
Und gern gesellt, damit verstehn sie
Helfen, zu anderen sich ein Dichter.

Furchtlos bleibt aber, so er es muß, der Mann
Einsam vor Gott, es schüzet die Einfalt ihn,
Und keiner Waffen brauchts und keiner
Listen, so lange, bis Gottes Fehl hilft.

Eta jakintsuegi izatea be ez da ona. Esker onak dau
A ezagutzen. Baina ez dau ori errez bakarrik
gordeten, eta pozik alkartzen da, ulertzen
lagundu dagien, besteakaz olerkaria.

Bildur barik gelditzen da ostera, bear danean, gizona
bakarrik Jaungoikoaren aurrean, xalo izateak zaintzen dau,
eta ez dau iskilurik bear ez amarrurik,
Jainkoaren utsarteak lagun dagian artean.

Stimme des Volks.

<Dritte Fassung>

Du seiest Gottes Stimme, so glaubt' ich sonst
 In heil'ger Jugend; ja, und ich sag' es noch!
 Um unsre Weisheit unbekümmert
 Rauschen die Ströme doch auch, und dennoch,
 Wer liebt sie nicht? und immer bewegen sie
 Das Herz mir, hör' ich ferne die Schwindenden,
 Die Ahnungsvollen meine Bahn nicht,
 Aber gewisser ins Meer hin eilen,
 Denn selbstvergessen, allzubereit den Wunsch
 Der Götter zu erfüllen, ergreift zu gern
 Was sterblich ist, wenn offenen Aug's auf
 Eigenen Pfaden es einmal wandelt,
 Ins All zurück die kürzeste Bahn; so stürzt
 Der Strom hinab, er sucht die Ruh, es reißt,
 Es ziehet wider Willen ihn, von
 Klippe zu Klippe den Steuerlosen
 Das wunderbare Sehnen dem Abgrund zu;
 Das Ungebundne reizet und Völker auch
 Ergreift die Todeslust und kühne
 Städte, nachdem sie versucht das Beste,
 Von Jahr zu Jahr forttreibend das Werk, sie hat
 Ein heilig Ende troffen; die Erde grünt
 Und stille vor den Sternen liegt, den
 Betenden gleich, in den Sand geworfen

Erriaren abotsa.

<Irugarren egikera>

Zu Jaungoikoaren abotsa zarana, sinestu neban leen,
gaztaro sakratuan; baita ori dinot oindino be!

Gure jakitearen ardura barik
doaz murmur ibaiak be, eta alan be

nork ez ditu maite?, eta beti eragiten deuste
biotzean, urrin aldentzen entzutean,
len-sumaz beterik, ez nire bidez
baina ziurrago itsasora leiatzen.

Izan be norberaz aazturik, guztiz gertu jainkoen
naia beteteko, pozarren artzen dau
ilkorrak, begiak zabal
bein bere zidorrez doala,

dan-guztirako biderik laburrena atzera; olan doa jatsiz
ibaia, atsedean bila, erakarri dau egiten,
naiezta daroa
aitzerik aitz lemabakoa

irrika arrigarriak ondogabera;
lotubakoak dau erakarten, eta erriak be
eriotz-atseginak ditu artzen eta uri
azarriak, onena bilatu ondoren,

urtez urte lanari ekinez,
amai sakratuak jo ditu; lurra berde dago,
eta isilik datza izarren aurrez,
otoigileen antzera, ondarretan auspez

Freiwillig überwunden die lange Kunst
 Vor jenen Unnachahmbaren da; er selbst,
 Der Mensch, mit eigener Hand zerbrach, die
 Hohen zu ehren, sein Werk der Künstler.

Doch minder nicht sind jene den Menschen hold,
 Sie lieben wieder, so wie geliebt sie sind,
 Und hemmen öfters, daß erlang im
 Lichte sich freue, die Bahn des Menschen.

Und, nicht des Adlers Jungen allein, sie wirft
 Der Vater aus dem Neste, damit sie nicht
 Zu lang' ihm bleiben, uns auch treibt mit
 Richtigem Stachel hinaus der Herrscher.

Wohl jenen, die zur Ruhe gegangen sind,
 Und vor der Zeit gefallen, auch die, auch die
 Geopfert, gleich den Erstlingen der
 Erndte, sie haben ein Theil gefunden.

Am Xanthos lag, in griechischer Zeit, die Stadt,
 Jezt aber, gleich den größeren die dort ruhn
 Ist durch ein Schicksaal sie dem heiligen
 Lichte des Tages hinweggekommen.

Sie kamen aber nicht in der offenen Schlacht
 Durch eigne Hand um. Fürchterlich ist davon,
 Was dort geschehn, die wunderbare
 Sage von Osten zu uns gelangt.

Es reizte sie die Güte von Brutus. Denn
 Als Feuer ausgegangen, so bot er sich
 Zu helfen ihnen, ob er gleich, als Feldherr,
 Stand in Belagerung vor den Thoren.

Doch von den Mauern warfen die Diener sie
 Die er gesandt. Lebendiger ward darauf
 Das Feuer und sie freuten sich und ihnen
 Streket' entgegen die Hände Brutus

arte luzea gurata garaitua
 antzera-ezin areen aurrean; gizakiak berak,
 bere eskuz apurtu eban,
 goikoak goraltzeko, bere lana ertilariak.

Baina ez dira areek gizakientzat gitxiago onberak,
 maite dabe, maitatuak diran lez,
 eta sarritan eragozten dabe, luzaro
 argia goza dadin, gizakiaren bidea.

Eta ez ditu arrano kumeak bakarrik
 aitak abitik botaten, luzaroegi
 gelditu ez dakiozan, gu be bultzatzen gaitu
 kanpora ziri zuzenaz Jaunak.

Doatsuak bakera joan diranak
 eta sasoi aurretik jausitakoak, areek be bai, areek
 uzta leenenkiak lez oparitutakoak,
 aurkitu dabe ondarea.

Xantos-en bazan, greziarren aldian, uria,
 orain orde, an atsedean daben andiagoen antzera
 alabearrez egunaren
 argi sakratutik joana da.

Baina ez gudaketa agirian,
 euren eskuz ziran il. Bildurgarria da
 an jazoaz sortaldetik eldu jakun
 kontaketa arrigarria.

Brutus-en ontasunak zituan zirikatu.
 Suak artzean, bera eskeini zan
 arei laguntzeko, naita orduan, gudaiburu izanez,
 esi-aldian egon ateen aurrean.

Baina murrutatik beera jaurti ebezan
 arek bialdutako laguntzaileak. Biziago biurtuz olan
 sua, poztu egin ziran areek, eta eskuak
 luzatu eutsezan Bruto-k,

Und alle waren außer sich selbst. Geschrei
Entstand und Jauchzen. Drauf in die Flamme warf
Sich Mann und Weib, von Knaben stürzt' auch
Der von dem Dach, in der Väter Schwerdt der.

Nicht rätlich ist es, Helden zu trozen. Längst
Wars aber vorbereitet. Die Väter auch
Da sie ergriffen waren, einst, und
Heftig die persischen Feinde drängten,
Entzündeten, ergreifend des Stromes Rohr,
Daß sie das Freie fänden, die Stadt. Und Haus
Und Tempel nahm, zum heiligen Aether
Fliegend und Menschen hinweg die Flamme.

So hatten es die Kinder gehört, und wohl
Sind gut die Sagen, denn ein Gedächtniß sind
Dem Höchsten sie, doch auch bedarf es
Eines, die heiligen auszulegen.

eta guztiak ziran eurenetik urtenik. Garrasia
sortu zan eta poz-oiuak. Orduan sugarretara
bota ziran gizon eta emakume, mutikoetarik
be teilatutik bota ziran nor, aiten ezpatara nor.

Ez da zuur gizurenei aurka egitea. Antzinatik
zan ori gertutua. Arbasoak be
bein jazarriak izan zirala, eta
persiar etsaiak oldartsu esitzean,

su emon eutsoen, ibaiko kainaberak batuz,
areek zelai utsa aurkitu egien, uriari. Eta etxe
eta jauretxe eroan ebazan eter sakratura
eta gizakiak egaz sugarrak.

Olan eben ondorengoak entzuna, eta
onak dira esateak, oroigarri dira-ta
Gorengoarentzat, baina bearrezko dau
baten bat gauza sakratuak azaltzeko.